

EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN: EUSKALTZAINDIAREN EGITEKOA

Andres Urrutia Badiola

Nafarroako euskalgintza gogor astindu du azken hilabeteotan 2000. urteko abenduaren 11n bertako Gobernuak onetsi duen Foru-Dekretuak. Horrek ekarri ditu, soka beretik, bestelako Foru-Erabakiak ere, lehen esandako dekretuaren garatze lana gauzatzeko asmotan, batik bat, Nafarroako hizkuntza-eskualde mistoetan.

Dekretu horri gehitu zaizkio, denbora laburrean, toponimia arloan gertatu diren epai-errekurtsoak. Horien bitartez auzitegien aurrean jarri dira, ezbaian eta auzipean, Nafarroako Toponimia finkatzen duten Foru Arauak.

Albisteok, zernahi gisaz, aspalditik datorren hari baten korapiloak dira edo, hala nahi izanez gero, kate luze baten katebegirik oraingoan. Kate horren lokarriak, aspaldikoak izan nahiz berritsuagoak gertatu, aurretiaz azaldu dira nire mahaikideen berbetan eta ez dute bestelako azalpen premiarik.

Bai, ordea, Euskaltzaindiaren ikuspegitik, gertaera horien aurrean gure erakundeak izan duen jokabidea. Azaldu beharra, hortaz, oraingoa, lehena ere azaldua izan den modu berean, nafar gizartearen esku eta asmoetara argi hel daitezen jokabide horren nondik norakoak.

Izan ere, aspaldiko kezka du Euskaltzaindiak euskararena eta, zer esanik ez, Nafarroan euskarak bizi duen egoerarena. Behin baino gehiagotan plazaratu behar izan du bere hitza Euskaltzaindiak, euskarari dagokiona urraturik geratzen zelakoan. Urraturik ez ezik, legeaz eta gizarteaz ere beheraturik, bi-biotan, arauetan eta elkarbizitzan, izan baitu, eta baitu, oraingoz ere, euskarak zer gaindi eta nola jokatu.

Gogora ditzagun, besteak beste, eta Andres Iñigo euskaltzainkidearena abiapuntutzat harturik, honako hauek:

1) Hasteko, Espainiako ordenamendu juridikoaren gailurra den Konstituzioa. Lege testu horren eztabaidan, begi-bistakoak ziren Euskaltzaindiarentzat euskarak izan zitzakeen kalteak eta oztopoak, hango hirugarren artikulua erakarriak. Hain zuzen ere, Donostian, 1978. urteko irailaren 29an aldarrikatu zuen Euskal Akademiak honako hau, euskararen bizimoduan Espainiako lege nagusi hark sor zezakeenaz kezkatutik:

Euskaltzaindiak, 573/1976 erret dekretuz, Juan Carlos I Errege jaunak berak, beste eginkizun batzuren artean, hizkuntzaren enplegua aintzinatzea eta beraren eskubideak zaintzeaz arduratzeko onartu zuenez, azalpen bat egin nahi du betebeharrontzat, jendaurrean jakinaraztera beharturik aurkitzen delako, orain eztabaidatzen ari den Konstituzio proiektuaren 3. artikulua gatzelania ez diren beste hizkuntza nazionalak bereztaturik uzten dituela.

Akademia honek, arazo honetaz inork galdetua izan ez denak, goian aipaturiko artikulua hori, gainera, Espainiako Estatuak Ginebran sinaturiko Giza Eskubideen Agiriaren letrarekin eta ez izpirituarekin bat ez datorrela gogorarazi nahi du.

2) Harrezkero ere, Iruñean bertan egin zuen bilera berezian, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak bere kezka areagotu zituen, 1979. urteko maiatzaren 25ean, Nafarroan euskara bera, babesteko premiarik gorrienean zegoela, hau da, Nafarroako egitura juridiko-administratiboa antolatzeko unean, baztertutik gera ez zedin. Honetara jo zuen Euskaltzaindiak orduko hartan:

Euskaltzaindiak, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako Foru Diputazioek emandako eta Erret Dekretuak birretsitako eginkizuna beteaz, hots, euskararen alde jokatzeari, Nafarroa Elebitasun Dekreturik gabe geldituko delako, zeharo kezkatu dagoela adierazten du.

Euskara Nafarroan lege baliakizunik gabe dagoela ohartzen da Nafarroak dituen eskubideekin elebitasun dekretu bat aurrera atera behar duela uste du, "Junta Superior de Educación" delakoak, behar den bezala eraberritua, noski, ondoren zehatz dezan.

Parlamentu eta Diputazio Foralei eskatzen die hainbat lasterren beren jarrera ager dezatela eta euskararen, hots, nafarren hizkuntzaren alde beharrezko diren neurriak har ditzatela.

3) Kezkaren kezka eta hiru urte geroago (1982), Euskaltzaindia, beste behin ere, artegatsu, "Proyecto de Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra" zela eta. Orduko hitzak esanahi zabaldukoak:

Aurretiaz azaldu nahi du, erakunde politikoa ez denez, ezin dela hasi Proiektuari inolako gogoramen orokorrik egiten, Konstituzioari egin ez zion modura, salbu 3. artikuluari, beraz Espainiako hizkuntzez ari baita (erantsitako 1. dokumentua). Aldi berean gogoratu nahi du, 1979.eko Maiatzaren 25ean, Iruñean ospaturiko batzarrean onartu zuen akordioa. Geroago aipatu akordioa, Nafarroan euskararen status delakoa (2. dokumentua) berretsi egin zuen ageriko bilkuran eta orduko Foru Diputazio Gorenako Burua zen Jaime Ignacio del Burgo jauna bertan zelarik eta baita Malon eta García de Dios jaun Diputatuak ere.

Hau dela eta, 573/1976 E.D. delakoaren 1. artikulua babespean eta erantsitako Estatutuen 1. artikulua f (3. dokumentua) zera kontuan hartzen du alegia, Lege Projektuaren 9. artikulua euskarari diskriminaziozko tratamendua ematen diola, zeren bertan, bakarrik, egun Erresuma Zaharrean euskaraz hitz egiten den tokietan ofizialtasuna aitortzen dio, euskararen atzerakuntzarako oraintsu eta iragan mende emandako arrazoi historikoak kontutan izan gabe; euskarak bizirik dirau erdal eremuetan hiztegi, esaldi eta, batez ere, toponimi eremuan; eta oro har, Nafarroako herrien kontzientzia eta oroipen kolektiboan dirau, eta azken batez ondare orokorra euskara hitz egiten den eremua, mugatu ezin dena.

*Kexa bizi-bizia azaldu nahi du hizkuntza biziari emandako tratamendua-
rengatik, hau da, Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 6. artikuluan eta Valencian Komunitate Autonomoaren Estatutuko 7. artikuluan, 4. eta 5. dokumentuak eskaintzen zaiena baino ahulagoa baita. Aipaturiko Komunitate biok Nafarroak daukan egoera berbera daukate linguistika eremuaren desberdintzapenaz, bai historia alorrean eta bai egungo egoeraz. Baina hizkuntza bie dagokien ofizialtasuna ez da aurretiazko jiteaz murrizten.*

Guztionengatik eta uztailleko bilkura arruntean, Nafarroako euskal idazle baten bigarren mendeurren dela eta, berau mintzairaz Nafarroa Garaikoa eta idazlearen sorterrian ospaturik. Hau dela eta, ezin du ixilarazi daukan kezka bizia, datorren foru legeak 9. artikulua garatuko duen itxaropenaz, beronek arazo hau behar den eran bideratuko duelakotan Gure Erakundearen eritzia jasorik eta baita Nafarroa mailan eragina daukaten beste erakundeena ere. Euskaltzaindia aholkatze tekniko eta zientifikoa eskaintzeko prest legoke beronekin legislatzaileei laguntza emanez.

Azkenez, Euskaltzaindiak zera nabarmendu nahi du, hots, bai Lege Projektu hau eta bai eman ahal diren beste zenbaitzu hala Gorte Jeneraletan nola Komunitate Politikoei dagokionetan, euskara negatiboki jotzen duenean –berau Mendebal Europako hizkuntza zaharrena delarik– adi izango dela eta ahalginak eginen dituela jagoten bizirik iraun dezan, bizkortzen eta garapen eskubideetan galtzaile ez irteteko.

4) Ildo beretik ere, badira Euskaltzaindian bestelako adierazpenak, Nafarroan euskarak izan dezakeen etorkizun latzaz arrangura bizia erakusten dutenak. Gogora ditzagun, besteak beste, honako hauek:

4.1. 1994. urteko uztailaren 4an, gogor jorratu zuen gaia Euskaltzaindiak. Arrazoia zuen horretarako Nafarroako Euskara Legean. Hiru alor plazaratu zituen sasoi hartan, lege berriari erreparoa egiteko asmotan. Lehena, lege horrek euskarari aitortzen zion lurralde eremu estuegia; bigarrena, FM irrati lizentzien banaketan euskara baztertzea; eta hirugarrena, hain justu ere, gogoratzeko euskara guztiona dela eta hizkuntza horri dagokiona zaindu egin behar dela, Espainiako Konstituzioaren arabera.

4.2. 1997. urteko urriaren 31n, beste behin ere, FM irrati lizentzia berriak zirela eta, erro-errotik deitoratu zuen Euskaltzaindiak euskara zokondoratzeara eta eskabide berezia egin zion Nafarroako Gobernuari berriro gerta ez zedin lehendabiziko hura, alegia, euskara halakoetan aintzakotzat ez hartzea.

4.3. Aipagarria, halaber, Barañaingo udalak lanpostuak betetzeko egin zuen deialdia. Deialdi horretan, euskara meritutzat hartu zen eta horri buruzko eztabaidak, auziak eta iritziak sortu ziren. Euskaltzaindiak 1997. urteko apirilaren 25ean aldarrikatu zuen berea, afera hori zela eta. Artean, epaiak eman ziren, Nafarroako auzitegien aldetik. Euskaltzaindiaren hitzetan, euskararena legezko eta betebeharrekoa zen, lanpostuetarako deialdietan:

Nahitanahiezkoa deritzaio Euskaltzaindiari, zenbait lanpostutarako, batez ere irakaskuntza eta administrazioaren arloetarako, euskaraz jakitea. Eta Barañaingo Udalak, gizarteak berak aspalditik bizi duenari men eginez legalki ez ezik, egoki eta zentzuz jokatu du deialdian baldintza hori jarritz, udalerrri horretan gero eta ugariago diren euskal hiztunei behar bezalako erantzuna eta zerbitzua eman ahal izateko. Horrela berretsi du Nafarroako Parlamentuak berak ere 1997ko apirilaren 24ko erabakian.

5) Egunotan ere, eta 372/2000, abenduaren 11ko Dekretua aurrean zuela, Euskaltzaindiak bere adierazpena egin du, gogoeta bizia erakutsiz Nafarroako Gobernuari. Gobernuaren gor-mutua ikusirik, berriro ere ekin dio gaiari 2001. urteko urtarrilaren hamaseian, Nafarroako Gobernuari euskararena gogorarazteko eta zuzeneko eskaria egiteko, hau da, lege testu berria aldarrikatu aintzin, aintzat har ditzan Gobernu horrek Nafarroako gizartearen eskabideak.

Erantzun bakarra, 2001. urteko urtarrilaren 24ko gutuna. Bertan ditugu eginaren zuriaketak, labur bezain estuak:

Por lo demás, debo decirle con absoluta sinceridad que mi Gobierno entiende, y yo mismo también, que no “han abandonado los objetivos esenciales de proteger la recuperación y desarrollo del vascuence en Navarra” ni se ha eliminado el de “garantizar el ejercicio de los derechos lingüísticos”. Cuestión distinta es que se hayan matizado los ritmos por los que la política del vascuence en Navarra debe discurrir; tarea esta que compete al Gobierno de Navarra por imperativo de la legislación vigente.

Euskaltzaindiaren ibilbide luzea ikusirik, bizpahiru ondorio atera ditzakegu orain arte zerrendaratu ditugun jazoera horietatik:

a) Lehena da, ezbairik gabe, Euskaltzaindia erakundea dugula, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek sortua eta Espainiako Koroak onartua (576/1976 Erret Dekretua). Arestian eraldatu dira (272/2000 Erret Dekretua) horren estatutuak eta berretsi egin zaizkio Euskaltzaindiari euskara konuetan dituen ahalmenak. Besteak beste, *euskararen eskubideen jagotea,*

erabilera bultzatzea eta hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea dagozkio erakunde honi, euskararen esparruko *ziurtagiriak, argibideak eta diktamenak* eskaini-ematearekin batera. Eta horiek, esan gabe doa, Nafarroan ere baditu egingarri Euskaltzaindiak.

b) Euskaltzaindia ez da erakunde politikoa, gobernu edo boterearen menpeko edo zerbitzukoa. Euskaldun guztiona da, euskaldun guztiok egiten ditugulako euskal hizkuntza eta kulturaren erkidegoa. Horren barruan, Euskaltzaindiak du, beste inork ez bezala, Euskal Herrian zehar euskara jagoteko betebeharra, lehen esan legez, ideologia guztien gainetik.

c) Euskaltzaindia bada nor euskararen aurka datozen legeak eta gertae-rak salatzeko. Salatze horretan Euskaltzaindiak *hitza* du eginkizun eta *ekintza* lanabes. *Hitz* horrek esan nahi du akademikotasun maila dagokiola Euskaltzaindiari euskara arloan, *hitzaren* bidez adierazteko erkidego akademiko eta zientifikoari euskararen aurkakoak. *Hitza*, hala ere, ez da deus ere *ekintzarik* ez badago. Eta *ekintza* horretan, gure ustez, Euskaltzaindiari ez dagokio Epai-tegien aurrean salaketak egitea. Bai, ordea, babesa nondik jaso eta goi mailako agintariei (estatu mailako zein nazioartekoei) mezua helaraztea.

Badira Nafarroan euskara nork babestu eta zein bidetatik ibili, dekretu horren aurka jotzeko abagunean. Kasurako, udalak eta kontzejuak, Udal-Kontzejuen Federazioa, alderdi eta elkarteak, ikastolak, sindikatuak... Horiek ego-kiak badira ere, ez dira Euskaltzaindiaren bideak, geroenean azalduko dugu-nez.

Ikus dezagun, bada, Euskaltzaindiaren egitekoa zertxobait zehaztu ondoren, zertan datzan Dekretu berri horren muina. Alferrik luzatuko genituzke dekretu horren inguruan gure ahaleginak. Maila eta tankera askotako argumen-tuak eman daitezke horren alde eta kontra. Aldekoak entzunak ditugu lehen ere; kontrakoak erruz zabaldu dira azken hilabeteotan.

Labur esanda, hala ere, ildo nagusi batzuk nabari daitezke testu horretan:

a) Dekretu hori ez dator bat Nafarroako gizarteak behin eta berriro euskararekiko erakutsi duen jarrerarekin. Gisa horretan, adibidez, hezkuntza mailan nafarrek urtez urte euskarari eskaintzen dioten atxikimendua ez da erraz lotzen dekretu horren arauoldearekin.

b) Dekretu horrek, bestalde ere, sustraitik hausten du euskararen garatze prozesua, batez ere, euskara bera ahulen dabilen esparruan, hizkuntza eskualde misto izenekoan. Euskarak laguntza gehien non behar eta horra doa, murritzeko xede osoarekin, delako Dekretu hori.

c) Hirugarrenez ere, esan beharrekoa da eskualde misto horretan dela arriskurik nabarmenena, dekretu hori dela eta, euskara kinka larrian ikusteko, Nafarroako Administrazioetik erabat aldentua. Bide horretatik goazela, oso adierazgarria da Dekretuaren zio-azalpena:

... se ha considerado conveniente revisar para afianzar el principio de seguridad jurídica, para ponderar el uso del vascuence con los medios necesarios para hacer efectivo su empleo y para responder a la realidad sociolingüística de Navarra después de la experiencia acumulada. A tal efecto, de acuerdo con la doctrina constitucional, se ha sustituido la calificación del requisito específico, que la normativa anterior otorgaba al conocimiento del vascuence cuando es preceptivo en el acceso a determinadas plazas, por la de conocimiento preceptivo, para incluirlo dentro del ámbito de los principios de mérito y capacidad previstos en el Artículo 103 de la Constitución. Esta revisión, por razones de técnica normativa, se hace a través de un nuevo texto que sustituye al anterior:

Azter ditzagun, gaingiroki bada ere, hiru arrazoiok:

a) Segurtasun juridikoarena. Badirudi hizkuntzen arteko ofizialkidetzak –orain artekoak behinik behin– segurtasun juridikoa hausten duela. Arrazoi horrekin azaltzen dena zera da, euskara ez baino, gaztelania dela segurtasun juridikoa eman dezakeen hizkuntza bakarra.

b) Euskararen erabilera eragingarria bermatzeko, aldiz, baliabideak eta aukerak zabaldu beharrean, murriztu eta gutxitu egiten dira, beharbada eragingarritasun hori ahalik sendoen bermatzeko ustearekin. Euskara gutxi, bai horixe, baina ondo lotua eta estekatua.

c) Nafarroako errealitate soziolinguistikoari ihardespena emateko anean, berehala antzematen zaizkio dekretu berri honi irtenbide mamitsuak; besteak beste, lanpostuetarako deialdietan euskara meritutzat hartzea arbuiaigarri izatea; toki, errepide, kale eta abarren errotulazio elebiduna ezabatu beharrekoa, euskararen erabilera norbanakoen borondate hutsera uztea... Horra hor, benebenetan, euskararentzako sustatze bide eragingarriak.

Labur beharrez, hala ere, jokatu behar. Hitz bitan esateko, hainbeste kaleagerraldi, adicrazpen eta epai-errekurtsoren ostean, zer egin?

Egia esan, eta dekretuak dekretu, Euskaltzaindiak, lehen esan legez, badu zereginik horren aurrean. Eta zeregin hori betetzera etorri zaizkizue zuoi, Nafarroako euskalgintzan diharduzuenoi.

Askoren ustez, gure erantzuna ez da behar bezain sendoa izan. Beste batzuren aburuz, motz eta labur ibili gara. Hala ere, Euskaltzaindia erakundea dela esan dugu lehen ere eta horri egin behar diogu men. Begirunea eta lotsa gordeta, esan beharrekoak azaldu behar ditu Euskaltzaindiak, euskararen babesa eskuratzekotan. Zin zinez diotse Euskaltzaindiak Nafarroako euskaltzalei, euskara duela xede eta helburu, aldian aldiko gertaeren gainetik. Euskarari tinko eusteko gogoarekin eta eguneroko behar-premiei dagokiena ahaztu gabe egiten du lan Euskararen Akademiak. *Hitza* proposatzen dizue Euskaltzaindiak eta hitzaren bidez, esana dugu, *ekintza* ere, gure kezka eta arrangu-

ra zabaltzeko eta hedatzeko, lehendabizikoz, estatu eta nazioarteko maila duten erakunde akademiko eta zientifikoetara –hizkuntzen arduraren dutenak bazter utzi gabe– eta geroago, maila guztietako gizarte erakundeetara. Politikaz at ere, behar-beharrezko da gure mezua argi ematea, euskararena, beste behin ere, bide bazterrean ikus ez dezagun.

Molde berari eutsiz, eginkizunak Euskaltzaindiaren Jagon Sailarentzat: euskarari buruzko informazioa bildu, eritziak plazaratu eta akademiaren ustea, euskararentzat tankera honetako gertaera kaltegarriak tartean direla, hainbat ondoen gizarteratu, euskaldunon eskura egon dadin.

Badugu, beraz, etxe barnean nahiz kanpo aldean, zeregin eta zerikasirik. Horretaz, adi egon, Juan San Martin mintzatuko zaigu xeheki.